



SAN BARTOLOME BASELIZA

JAKINTZA IKASTOLA DBHO2

**IÑIGO SANTAMARIA, MARA PEREZ, MADDI GARATE
ETA JUNE ORMAZABAL**

AURKIBIDEA

BASELIZAREN HASIERAKO FUNTZIO NAGUSIA.....	2
GARAPEN HISTORIKOA.....	2
AZTERKETA FORMALA.....	3
BERTAN AURKITU DIREN HILOBIAK.....	5
OSBELE ELKARTEKO KIDEARI ELKARRIZKETA.....	7
ZERGATIK ZAINDU ETA MANTENDU ?.....	10
BIBLIOGRAFIA.....	13

BASELIZAREN HASIERAKO FUNTZIO NAGUSIA

San Bartolome basiliza Ordizian oso antzinakoa da, XIII. mendekoa gutxienez, eta herriko erlijio zein gizarte bizitzan garrantzi handia izan du mendeetan zehar. Hasieran, herritarren otoitz eta erlijio ospakizunetarako lekua zen. Gainera, Santiago Bideko San Adrian ibilbidean kokatuta zegoenez, erromesek atseden hartzeko eta otoitz egiteko erabiltzen zuten ibilbidea egiten jarraitu aurretik.

Garai batean, basiliza honek herriko parrokiaren funtzioa ere izan zuen, bizilagunentzat eliza nagusia izanik. Denborarekin, eliza handiago eta berriak eraiki zirenean, basilizak bigarren mailako funtzioa hartu zuen, baina garrantzi historiko eta espiritualari eutsi dio.

Gaur egun, San Bartolome basilizan ospakizun erlijioso gutxi egiten dira, baina oraindik toki sinboliko eta kuttuna dauka herritarrentzat. Bereziki, abuztuaren 24an, San Bartolomeren egunean, ohiko meza ospatzen da basilizan. Egun horretan, fededunek basiliza bisitatu eta mezan parte hartzen dute, basilizari lotutako tradizioa bizirik mantenduz.

Laburbilduz, San Bartolome basiliza erlijio eta historia gune garrantzitsua izan da Ordizian, bai herritarrentzat, bai erromesentzat, eta oraindik ere tradizio eta ospakizun berezien lekuko izaten jarraitzen du.

GARAPEN HISTORIKOA

San Bartolome basiliza historiaz eta tradizioz betetako eraikina da. Bere jatorria Erdi Aroan kokatzen da, eta orduko erromaniko edo gotiko estiloko elementuak ditu. Hasieran, toki erlijioso gisa sortu zen, San Bartolome santuari eskainita. Basiliza hauek sarritan landa eremuetan edo erromes bideen ondoan kokatzen ziren, bertako komunitateei eta bidaiariei laguntzeko.



Historian zehar, basiliza aldaketa ugari jasan ditu. Lehen egurrezko egiturak harriz ordezkatu ziren, eta denborarekin estilo berrietara egokitu ziren, hala nola, barroko apaingarrien gehikuntzekin edo beste berrikuntza batzuekin. Horrez gain, inguruko biztanleek maiz erabiltzen zuten, ez bakarrik erlijio zerbitzuetarako, baita bilera eta ospakizunetarako ere.

San Bartolome eguneko jaiak garrantzitsuak izan dira basilizaren historian. Jai hauetan, santuaren omenez mezak, prozesioak eta herri ekintzak egiten ziren. Ohitura hauek komunitatea batu eta tradizioak mantentzeko balio izan dute.

Baselizaren kokapena ere berezia izan ohi da, mendi-muinoetan edo ikuspegi ederreko lekuetan eraikita. Honek balio erlijiosoa ez ezik, sinbolikoa ere ematen dio eraikinari.

Gaur egun, basiliza ondare kultural eta historiko garrantzitsua da. Bere historia eta tradizioak bizirik mantentzeko ahaleginak egiten dira, eta bisitari askoren interesa pizten du. Basiliza hauek iraganeko fedea, arkitektura eta ohiturak ulertzeko leku paregabeak dira. San Bartolome basiliza, beraz, bertako eta kanpokoentzat garrantzitsua izaten jarraitzen du.



AZTERKETA FORMALA

Historian zehar eraldatzen joan den basiliza baten aurrean gaudela aipatzen hasi genezake, hain zuzen ere, San Bartolome basilizaren aurrean, zeina Ordizian kokatzen den. Eraikinaren bilakaera horretan basiliza hiru modu ezberdinetan nabarmendu da; lehenik, Erdi Aroan, basiliza erromanikoa zen; bigarrenik, tenplu gotiko izatera igaro zen; eta azkenik, hau da, gaur egun, neoklasiko itxura duela ikus genezake. Ermitaren azken eraberritze lanak 1859. urtean egin zituzten, Napoleon-en gerretan frantses tropek beraien erretiratzean guztiz erre baitzuten ermita.



Gaur egun aurkitzen dugun basiliza neoklasikoa aztertzearen, zera aipatzen hasi genezake, 94.25 m²-ko azalera eta oin angeluzuzena duen eraikina dela. Hori horrela, lau fatxadaz osaturik dago, aurrekaldekoa nabarmenena delarik. Materialari erreparatuz gero, kareharria material nagusia dela ikus genezake, eta gainera, atzekaldeko fatxadan oraindik harlandu zaharra ere mantentzen dela, ziurrenik



aurreko eraikin zaharretik kontserbatu dena. Aurreko fatxadari dagokionez, harearizko harlanduak ikus ditzakegu bi aldeetan forma eta neurri proportzional batean kokatuta. Fatxadaren erdian, berriz, ermitak duen sarrera bakarra aurki dezakegu, hots, arku batez inguratutik dagoen atea, non arku hori ere hareariz osatutakoa den, eta atea, aldiz, egurrez egindakoa. Beste hiru fatxadak, ordea, aurrekoa baino soilagoak dira, aldeko biek altarera zuzentzen den lehio bat dutelarik, eta atzekaldeko fatxadak erdi-puntuko lehio txiki bat duelarik. Hori horrela,




lechioek ermita egunez argi naturalarekin argiztatzeko aukera ematen dute. Teilatuari erreparatuz gero, zera aipatu genezake, teila zeramika arabiarrekoa dela eta hori egurraren gainean kokatuta dagoela. Estalkiaren egitura bao bakar batez egina dago, eta fatxada nagusiarekiko paraleloan eta perimetro-paretetan bermatuta dauden lau habek osatzen dute. Estalkian, zehazki fatxada nagusiko sarreraren gainean, bi isurkiko teilatutxo duen igeltserotza-elementu txiki bat aurkitzen da, eta bertan, ermitak daukan kanpai bakarra, zeinari eskuz eragiten zaion baselizaren barruan dagoen kordel baten bidez.

Ermitareen barnealdeari dagokionez, bi eremu nagusitan banatzen dela ikus genezake; batetik, altarea kokatzen den eremua legoke, eta bestetik, zoladuraren edo gainontzeko zatiaren eremua. Lehen eremu hori beste eremua baino pixka bat garaiago kokatzen da, eta bertan, aldarea aurkitzen dugu zeina ekialderantz begira kokatzen den, hots, eguzkia ateratzen den alderantz begira.



Eremu bat bestetik banatzen duen metalezko hesi bat ere errepara dezakegu, zeinak metro bateko altuera duen. Bestalde, baselizaren zoladura kareharrizko lauzez egina dago, neurri errespetagarriekin eta nahiko egoera onean aurkitzen dena. Hantxe, momentuan lurra altxatuta dago egin diren indusketa lanak aurrera eramanez izateko, baina izatez, ermitara joaten zirenei eskainitako eserlekuak kokatzen ziren. Baselizako paretak zarpiatuta nahiz zuriz margotuta aurkitzen ditugu. Barrukaldetik gorantz begiratuz gero, sabaia kanoi-ganga baten moduan egina dagoela ikus genezake, baina oholtxo eta igeltsuzko sabai aizunez.

Azkenik, barnealdeko apaindurak aztertzearen, gaur egun elementu gutxi geratzen direla aipatu genezake, baina badakigu iraganean garrantzi handia zuten pinturak zeudela, besteak beste. Gaur egun, berriz, aldarearen atzean dagoen hormaren erdian San Bartolomearen irudia ikus dezakegu sugea zapalduz, hau da, San Bartolomek ongia edo ona irudikatzen du eta hura sugeak irudikatzen duen etsaia edo txarra zapaltzen ari da. Irudi hori da dekorazio-elementurik nagusia, baina haren bi alboetan San Joseren eta Maria Birjinaren koadroak ere aurki ditzakegu.



BERTAN AURKITU DIREN HILOBIAK

Hilobi asko aurkitu dira San Bartolome basilizako inguruan, berrienak XIX.mendekoak, baina XVI.mendeko gorpuzkiak ere aurkitu dira. Era berean, topatu diren gorpuzki zaharrenak 1000. urtearen inguruan kokatutakoak dira. Gorpuzki zaharrenak gaur egungo basilizaren barruan aurkitutakoak dira, baina bere garaian hauek kanpoan zeuden kokatuta.



Era berean, aurkitutako hezurak Osbele taldeko kideek ikertu ondoren, ikusi dute hauek Erdi Aro, Aro Moderno eta Aro Garaikidekoak direla, eta egoera onean aurkitutakoak direla, batez ere Aro garaikide eta Aro Modernokoak. Gainera, baselizaren barruan topatutako hilobia bikoitza zela azpimarratu digute, bi gorpuzkiekin bere barruan. Horrez gain, hilobiak karea zeukan barruan, garbiketa lanerako erabiltzen zena garai hartan. Honek, bertan zeudenak izurrite baten onorioz hildako gorpuzkiak zirela esan nahi digu. Azken finean, historian zehar izurrite asko egon dira: adibidez Erdi Aroan, Gipuzkoa, gainerako Europa bezala, hainbat epidemiaren erdian zegoen, horietako suntsitzaileena izurrite beltza (1347-1351) izanik, Europa osoa suntsitu eta milioika pertsona hil zituena. Izurritea, *Yersinia pestis* bakteriak eragindakoa, nagusiki arratoi bidez hedatu zen. Gipuzkoako kostako hiri eta merkataritza-eremuetan, hala nola Donostian, azkar zabaldu zen, biztanleria dentsitate handia zegoelako eta higiene neurri eskasak. Pandemia honek ez zuen soilik biztanleria murriztu; egitura sozial eta ekonomikoak ere aldatu zituen.

Gaixotasunei dagokionez, arnas infekzioak, hala nola tuberkulosia, eta gaixotasun gastrointestinalak, uraren eta elikagaien kalitate eskasa zela eta, ohikoak ziren. Desnutrizioa ere arazo larria izan zen, dieta oso mugatua baitzen; nagusiki ogia, haragia gutxi batzuetan, eta lekaleak eta arrainak. Elikadura txarra zela eta populazioa gaixotasunekiko askoz ere ahulagoa bilakatu zen.

XIX. mendean berriz, Industria Iraultzarekin eta bizi-baldintzen hobekuntza jazo zela eta hainbat lekutan, Gipuzkoan egoera pixkanaka aldatzen hasi zen. Halere, izurriteak mehatxu gisa jarraitu zuten, adibidez, 1800. urtean. Gipuzkoak sukar tifoidearen eta koleraren broteak jasan zituen, batez ere industria-hirietan, portu eta merkataritza jarduera handitzen ari zen lekuetan, hala nola, Donostian. Kolerak, bereziki, XVIII. mende amaieran eta XIX. mendean markatu zuen Euskadiko historia sanitarioa, hainbat epidemia egon zirelako eta milaka pertsona hil zirelako.

Baita ere aipatzekoa da Karlos III.ak egindako lana higiene eta garbiketa legeak ezarriz. Hauek Espainiako hirietan osasun-baldintzak hobetzea eragin zuten. Neurri hauek kaleak garbi mantentzea zuten helburu: hondakinak kalean bertan botatzea saihestea eta ur zikinen kudeaketa sustatzea bultzatzen zuten, baita iturrien eta espazio publikoen garbiketak ere. Gainera, hirietan estolderia-sistemak eraiki ziren, epidemien hedapena saihesteko kontrolekin batera. Elikagaien merkataritza ere arautu zen, haien kalitatea bermatzeko eta kutsadurak saihesteko, eta honek elikaduran hobekuntzak ekarri zituen, nekazaritza eta abeltzaintza garatzen ari ziren heinean. Halere, oraindik ere jende askok ez zuen elikagai nahikorik. Populazioaren dieta, gehienetan, orea, lekaleak eta arraina bezalako elikagaietan oinarritzen zen. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran elikadura hobetu zen, elikagaiak eskuragarriago bihurtu zirelako, merkataritza zabaltzea eta nekazaritza eta elikagai kontserbazio tekniken sarrera lagunduz.

XX. mendean, medikuntzan, osasun publikoko arloan eta elikaduraren hobekuntzan aurrerapenak izan ziren, eta horrek Gipuzkoan epidemien eta gaixotasunen beherakada ekarri zuen. Gaixotasunen txertoak garrantzitsuak izan ziren epidemiak kontrolatzeko, eta bizi-baldintzak hobetzeak eta edateko ura eta hiri-higienea bezalako azpiegituretan jazo ziren hobekuntzek gaixotasun infekziosoen murrizketan lagundu zuten.

Elikadurarekiko ere garapen handia egon zen XX. mendearen azken laurdenean Gipuzkoan. Dieta gehiago dibertsifikatu zen, elikagai garrantzitsuen eskuragarritasuna hobetzen eta elikagai-industrializazioa handitzen zen heinean. Biztanleriak elikagai askotarikoagoak izan zituen eskuragarri, hala nola esnekiak, fruta, barazkiak eta haragi prozesatuak, eta horrek osasuna eta bizi-kalitatean hobekuntzak ekarri zituen. Hala ere, XX. mendearen bigarren erdian, dieta askotarikoen eta prozesatutako elikagaien gehiegizko kontsumoarekin lotutako gaixotasun kronikoak ere azaldu ziren, hala nola diabetesa eta bihotzeko gaixotasunak, hiri-inguruetan nagusiki.

Laburbilduz, Gipuzkoan epidemien, gaixotasunen eta elikaduraren historiak bilakaera handia izan du. Gaur egun, medikuntza eta bizi-baldintza geroz eta garatuagoi esker osasun eta elikadura baldintzak hobetu diren arren, Erdi Aroan eta Aro Modernoan gaixotasun infekziosoak eta desnutrizioa ziren nagusi. San Bartolome baselizan aurkitutako gorputzek, ziurrenik, baldintza horietan bizi behar izan zuten, bizi izan ziren garaiko izurrite eta elikadura arazoei aurre egin behar izanez.

OSBELE ELKARTEKO KIDEARI ELKARRIZKETA

Egoera hurbilagoetik ezagutzeko, OSBELE (Ordiziako San Bartolome Ermitaren Lagunak Elkartea) elkarteko kide batekin bildu gara. Ermitaren kontserbazioa eta errestituzioa bultzatzeko asmoz, duela urte batzuk bildu ziren ermitan interesa agertu zuten herritar batzuk. Ermitaren egoera larriaz guztiz kezkatuta, haren inguruan gehiago jakiteko jakin-minez eta herrian dugun altxorren berri emateko imintziaz, behar diren baimenak eskatu eta urteetan martxan egon den ikerketan murgildu ziren. Nerea Iraola kidearekin bildu gara horregatik, bizi izan duen esperientziaren testigaintza biltzeko, jarraian deskribatutako elkarrizketa garatuz.

Elkarrizketatzailea. Gabon Nerea, hasteko milesker gonbidapena onartzeagatik.

Nerea. Gustu handiz.

E. Badirudi oraindik badela ermitaren inguruan egiteko lana, ezta? Zein egiteko dituzu gaur egun San Bartolome ermitaren inguruan?

N. Bai, hala da. Niri, ikerlari bezela, 2018an hasitako lanketa gustatuko litzaidake bukatzea; esaterako, oraindik ez dugu topatu Erdi Arokoa den tenpluaren burua. Aurreko urteko ekinaldian, gure sorpresarako, tenplua guk uste genuena baino handiago zela deskubritu genuen, eta tenplu hau zehaztea gustatuko litzaiguke, zenbateko dimentsioa edo tamaina zuen, eta non kokatzen zen aditzera eman ez. Hori ikerlari bezela, noski. Azken finean, indusketa ekinaldi ezberdinek informazio ugari eman digute; dokumentuak berak informazio asko eman zigun, baino indusketak are informazio gehiago eman digu Erdi Aroko San Bartolomei dagokionez. Orduan, idealena irekitako ziklo hori bukatzea izango litzateke.

E. Interesgarria. Eta gaur egun, horrez gain, ze lan egiten dira ermitaren inguruan?

N. Gaur egun ermitaren inguruan? Bueno, guk adibidez, historialari lanak egiten ditugu, eta indusketekin gabiltza, baina gero Osbele elkarrekin ere gurekin batera helburu finko bat du: ermita balorean jartzea. Azken finean atzean historia handia duen lekua da, eta bai nahi da, jakina, bertan dagoen istorioa balioan jartzea eta herriko beste gune garrantzitsu bihurtzea.

E. Noski, historia garrantzitsua da. Bide batez, baseliza orain arte nahiko egoera kaxkarrean egon dela jakin dugu. Zer neurri hartzen dituzue baseliza zaintzeko?

N. Momentuz, gaur egun, baseliza edo ermita honen jabetza elizarena da, Donostiako Elizbarrutiarena hain zuzen ere. Orduan herriak edo udalak berak egiten duena inguruko belarra moztu edo txukuntzea da, Osbeleren eginkizuna ere baita ermita bera egoki mantentzea. Baina bai, etorkizunera begira, eliza eta udala batuta ermita bera zaharberritu nahi da, eta ez hori bakarrik; ingurua ere eraberritzea gustatuko litzaiguke. Nola? Bada, atera diren arrasto guztiak kontsolidatuz, oso hauskorak baitira gehienak, paretak salbu, eta oraintxe bertan dauden bezala kanpora ateratzea arriskutsua delako. Horiek, orduan, egonkortu egin beharko lirateke. Era berean, parke arkeologiko bat garatu nahi da. Azken finean, ermita hau garai batean San Bartolome izan zenaren sinbolo bat da, eta orduan, inguruarekin lotuta ermita bera balioan jarri nahi da.

E. Parke arkeologikoaren ideia bikaina da, onartu behar da. Halere, ez da gehiegi mintzatzen baselizaren inguruan. Zerk bultzatu zintuen haren inguruan interesa garatzera?

N. Kontua 2013an hasi zen, David, Jon Ander eta nik (Osbeleko beste kide batzuk) Ordiziako Udalak antolatu zuen Victor Mendizabal bekaren irabazleak izan ginenean. Orduan hasi ginen Ordiziako historiaren inguruan ikerketa garatzen. Ondoren nik tesi doktora Ordiziako hiri garapenaren inguruan egitera bultzatu ninduen lana izan zen. Bada, esan dizuedanez Ordiziaren jatorria hau dela eta oraindik dokumentalki ikertu gabe zegoela deskubritu genuenean, San Bartolome baseliza ikertzen lehenengoak izatea erabaki genuen. Halere, 2018an, hiri gutunaren 750. urteurrena bete zenean, oraindik haratago joan nahi izan genuen, eta San Bartolome ordiziar zaharrentzat zein garrantzitsua izan zen ikusita, gehiago

ikertu nahi izan genuen. Azken finean, historialari ordiziar eta ikerlari baten grinak, horrexek bultzatu ninduen.

E. Arazo bat dago, baina: jende askok oraindik ez daki baselizaren existentziari buruz ere. Zer esango zenieke ermitaren inguruan ia ezer ez dakiten horiei? Interesa jarri beharko luketeela uste duzu?

N. Bueno, hasteko ahaztu egin zait, lehengo galderarekin lotuta, ez naizela ni bakarrik izan arkeologia lanak eta ikerketa lanak burutu dituenak, baizik eta atzean pertsona ugari izan ditut. Azken finean, oso garrantzitsua da ere talde lana: Osbele auzolanarekin oso lotuta dagoen elkarte bat da. Orduan, gaur egun dakigun guztia jakitearen arrazoia atzean egin dugun talde lana da.

Eta, zer esango niekeen San Bartolomeren inguruan ezer ez dakienei? Ba berez iruditzen zait zonalde hau Eroski supermerkatuarekin lotzeko joera dugula; “Eroskiko auzoa”, “Eroskiko zonaldea”,... Ez dugu kontuan hartzen hemen Ordiziaren jatorria den ermita itxuradun gune bat daukagula. Gainera, askotan nortasunez eta harrotasunez ordiziarrak garela esaten dugu, ezta? Hori esatean gustura gelditzen gara gainera, baina askotan, ez dakigu nondik gatozen, eta hori arazo larria da; benetan jakin behar da nondik gatozen. Ordizia gaur dena baldin bada, ondare bati esker dela, eta arbaso batzuen lanari esker dela jakin behar dugu (adibidez, aipatu dizuet lehen nola egon ziren Ordizian egondako pertsona asko errege gortean lanean). Horri guztiari esker ikusten dugu gaur begien parean dugun Ordizia hau. Azken batean, historia hori da: garapen bat, gauzatua izan den garapena, pertsonok garatu duguna. Horregatik, denok jakin beharko genuke orainaldian eta etorkizunean nondik datorren herri hau. Ondo dago ordiziarrak zaretela esatea, baina, ba al dakizue zergatik zaretan ordiziarrak?

E. Eta azkenik, orain gure ermitatik haratago begiratzuz: ba al dago inguruan merezi duten baino garrantzia gutxiago ematen zaien San Bartolomeren antzeko eliza edo ermitarik?

N. Askok daude. Halaber, nik uste gaur egungo kulturaren erlijio kutsua duten eraikin eta elementu asko atzera botatzeko ohitura dugula. Eta esan dizuedan bezela, ez dira aztertu behar gaur egungo ikuspegitik, ez? Historia ez da inoiz aztertu behar gaur egungo ikuspegitik, baizik eta garaiko testuingurutik. Eraikin horiek ez dira kutsu erlijiosodun eraikinak bakarrik; badute haien zati zibila, herria biltzen zen lekuak izan baitira urte askotan. Gaur egun funtzi ezberdinetarako leku ezberdinak izan ditzakegu, baina garaian ez zeukaten agian hainbesteko aukerarik, eta orduan, elizak edo tenpluak, besteak beste, oso balioaniztunak izaten ziren.

E. Arrazoi guztia duzu bai. Egoera honi buelta eman beharko diogu nolabait. Bueno ba, hau izan da dena. Milesker.

N. Eskerrikasko zuei, bai.

ZERGATIK ZAINDU ETA MANTENDU ?

Azkenaldian, hiritar helduenen artean kezka bat zabaldu da: belaunaldi berriek orokorrean elementu eta eraikin erlijiosoekiko duten gutxiespena ikusita, etorkizunean horiek zaintzeaz arduratuko direnaren zalantza dute. Eta ez zaie arrazoirik falta beldurrik ez izateko. Erlijioari geroz eta garrantzia gutxiago ematen zaion gizarte batean, badirudi ahazten goazela pixkanaka duela urte batzuk zuen indarra, eta geure arbasoen bizimoduko ze zati garrantzitsu osatu zuen. Nerea Iraola OSBELEko kidearekin ere horren inguruan; elkarrizketan ikusi daitekeenez, askotan azpimarratu zuen erlijioaz haratagoko begiradaz begiratu behar diegula elementuei, merezi duten balorea eman diezaiegun. Hain zuzen ere, gure ermita zergatik babestu behar dugun galdetu genionean, hauek izan ziren bere hitzak: *“Zergatik? Azken finean Ordiziaren jomuga delako, bai? Hemen hasi zelako Ordizia, bere historia, ordiziar arbasoek oso maite izan duten lekua delako, bere garrantzia eman diotelako, eta guk orainean eta etorkizunean ezin duguna da ahaztu. Erabat ahaztu.”*

Erabat ahaztea. Hori da gure ermitari gerta diezaiokeen okerrena. Fenonemo hau, alabaina, pixkanaka zabaltzen ari da, eta gu geu gara horren testigu: San Bartolome ermitari buruzko ikerketa egiteko eskatu zigutenean, gutxik genekien leku bitxi hura gure herrian zegoela ere. Gainera, informazioa bilatzen hasterakoan, oztopo handi batekin egin genuen topo; ezjakintasunarekin. Senide eta inguruko pertsonak ezer gutxi zekiten lekuaren inguruan, eta orduan, misterioaz erabat harriturik, Internetera jo behar izan genuen azkenean. Zorionez, ikusi genuen Osbele elkarte ongi arduratzen ari dela ermitaren sekretua azkenean azalera ateratzen; duela gutxi argitaratutako dokumentu eta egunkarietako berri ugari bilatu genituen, gehienen autoreak haiek zirelarik. Ermita hau denon ikusmiran jarri nahi digute behingoagatik, denok ezagutu ditzagun gure erroak eta gure iragana.

Ezjakintasun horren arrazoia, Nereak azpimarratu duen bezala, erlijioarekin egiten dugun lotura izan daiteke. Egia esan, gaur egun elizak edo ermitak aipatzean, denoi etortzen zaigu burura hitz-sorta berdina; mezak, apaiza, errezatu, Jainkoa, ... Erlijioa, orokorrean. Normala da baina; gaur egun baliabide eta elkarte ezberdin asko ditugu, eta herriko eraikin bakoitzak bere funtziorako balio du: udaletxeak erabakiak hartzeko, kiroldegiak kiroletarako, edo logikoki, elizak erlijiorako. Halere, duela urte batzuk, banaketa hau ez zen hain argia; Euskal

Herriko eliza eta ermitak, funtzio erlijiosoaz gain, bazituzten haien betebeharrak laikoak ere: leku administratibo, sozial eta sinbolikoak ziren ere.

Urte luzez, ermitak izan ziren auzo-batzar irekiak burutzeko leku, eta udaletxerik ez zen lekuetan, baita erregimentuetarako leku ere. Herritarrak, horrela, elizako kanposantuetan edo barrualdean biltzen ziren, koruan, askotan. Euskal Herrian badira horren adibide ugari; Lekeition, parrokiako atarian, hilerriko teilatutxoaren azpian biltzen ziren; Markinan, San Pedro elizan; Erreterian, parrokiako koruan; Gasteizen, San Migel hilerrian; Bilbon, Santiago elizan. Getxon, 1792an, Santa Maria elizako hilerrian batzarrak egiten jarraitzen zuten. Eta gure San Bartolome ermita ez zen salbuespena, Nerea Iraolak esan digunez.

Halere, zorionez, leku hauen kontserbazio eta errestituzio lanetarako gogotsu agertu dira udaletxe asko azkenaldian. Palenciako udalak, esaterako, 258.000 euro inbertituko ditu probintziako eliza eta ermiten errestituzioan, eta Castilla la Mancha-ko udala ere martxan jarri da, hauxe aitortuz: “helburua gure historia, gure erroak eta gure nortasuna gogoratzen jarraitzea da. Nortasun bakarra, historian zehar eraiki duguna kontserbatu behar ditugun tradizio, eta manifestazio kulturalen bitartez.”

Hala eta guztiz ere, batzuk arazo batekin ari dira topo egiten: ermita eta elizak mantentzeko behar den diru kantitate dezentea eskuratzeko zailtasunekin. Ekintza hauek gauzatzeko, milaka euro behar izaten dira orokorrean, eta gotzaindegiak beste erakunde eta administrazio publikoekin dituen hitzarmenek ez dute diru nahikoa ematen. Hori horrela, herrietako bizilagunak ari dira izaten ondare historiko horien salbatzaile, haiek jarritik dirua, edota batzuetan, jarduera ludiko edo kulturalak antolatuz behar den dirua lortzeko. Gizarte eta erlijio mugimenduekin loturiko kofradia eta elkarteak ere ari dira jartzen diruaren zati. Badirudi, beraz, badagoela herritarren artean ermita eta eliza zahar horietara lotzen dituen balore sentimental bat.

Egoera gure herrira ekarriz berriz ere, San Bartolome ermitaren salbatzaile ere nolabait herritarrak izan direla esan dezakegu. Historiarekiko, edo gure iraganarekiko pasioak bildu zituen hiru ordiziarretan hasi zen dena. Gure sustraiak non dauden haien buruari galdetu zieten hirutan. Zorionez, beste herri askotan ez bezala, azkar jaso zuten beste herritar batzuen babes, eta elkarte indartsu bat sortzea lortu zuten. Behar diren baimenak jaso ondoren, ikerketan sakon murgildu ziren, deskubritutako dena idatziz bilduz.

Hain zuzen ere, *“El origen olvidado de Villafranca-Ordizia”* idatzian, honela azaldu zuten San Bartolomeren balorea: *“Ermita zaindu eta balioztatu beharreko ondasun kulturala da. Zutik jarraitzen duen estruktura balore arkitektonikoagatik nabarmentzen ez den arren, aurkitzen den lekua kontuan izanda, balio historiko eta sinboliko handia du, tradizioaren arabera gogoratuz, Ordiziaren jatorria den lekuan aurkitzen delako.”* Era berean, honela azaldu zuten haien lanaren helburua: *“ordiziarrek eta San Bartolome betidanik lotu izan dituen lotura*

berriz josteko bultzada sortu nahi dugu, eta era berean, bere benetako jatorria deskubritzeko ekimena abiarazi. Azken batean, ekarpen txiki bat egitea dugu xede, hiritarrak ermitak eta haren inguruneak duen garrantziaz jabetu daitezen.”

Beraz, iruditzen zaigu herritar batzuk interes falta duten arren, arazoa benetan orain arte egon den informazio falta dela. Ezinezkoa da inoiz entzun ez duzun zerbaiten inguruko interesa izatea, eta nik uste ordiziar gehienek guk bezalako erreakzioa izango luketeela: jakin-minez, eta sorpresaz beterikoa. Horretarako, nik uste egitekoa San Bartolome erlijiotik urrundu eta ikastola, erakunde eta ekimen ezberdinetan haren berri ematea dela. OSBELE taldea lan ikaragarria egiten ari da komunikabide ezberdinetan haretaz mintzatuz, baina orain guk jarraitu behar dugu bide hori eraikitzen.

Ordiziarrok agertu behar dugu harekiko interesa, eta gure jatorriaz informazioa zabaltzeaz arduratu behar dugu. Oraingo belaunaldientzat misterio bat izan dena agerian utzi behar diegu hurrengoei, etorkizunean gure seme-alaba edota bilobak arduratu beharko direlako hura mantentzeaz. Orena, gainera, oraindik misterioa erabat argitu gabe dagoela da, eta beraz lanean jarraitu behar dugula. Ordiziarrok, hauxe da gure egitekoa, beraz: etorkizunaz arduratu eta oraina bizitzea bai, baina gure iraganaz jakitun izan eta ordundik geratzen dena zaindu eta mimatzea.



BIBLIOGRAFIA

https://youtu.be/y5Rt9n6nH_Q?si=sVaGphxS7LBIHqPB

<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/2017/07/16/queremos-mejorar-ermita-san-bartolome-3989919.html>

<https://agenda.diariovasco.com/evento/san-bartolome-baselizako-ohizko-meza-434883.html>

<https://www.ordizia.eus/es/noticias-cultura/4445-las-excavaciones-de-san-bartolome-continuaran-este-2020>

<https://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/ordizia/san-bartolome-nuevo-tejado-20230819203049-nt.html>

<https://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/ordizia/sabado-celebrara-san-bartolome-ermita-20240822200505-nt.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.google.com%2F>

<https://www.ordizia.eus/es/noticias/211-ordizia-750-es/3821-ordizia-inicia-la-busqueda-de-sus-raices>

[https://eu.wikipedia.org/wiki/San_Bartolome_baseliza_\(Ordizia\)](https://eu.wikipedia.org/wiki/San_Bartolome_baseliza_(Ordizia))

https://b5m.gipuzkoa.eus/map/eu/D_A63832?tool=pan&zoom=19¢er=-2.17990%2C43.05148&map=topo-latest

<https://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/ordizia/historia-ermita-bartolome-20230119213834-ntvo.html>

https://www.kulturweb.com/adm/ficha.asp?tipoficha=1&que=39&id=18753&L_Id=174&idioma=eu

<https://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/ordizia/san-bartolome-descubre-tesoros-20240128221856-nt.htm>

!

ZERGATIK MANTENDU ETA ZAINDU

<https://www.castillalamancha.es/actualidad/notasdeprensa/conservado-el-pasado-y-poniendo-en-relieve-el-futuro>

<https://www.plataforma-ekimena.org/el-uso-laico-tradicional-de-las-iglesias-y-ermitas/>

<https://www.diputaciondepalencia.es/noticia/reparacion-conservacion-24-iglesias-ermitas-medio-rura>

GAIXOTASUN ETA EPIDEMIIEN BILAKAERA

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/principales-epidemias-historicas-en-donostia-san-sebastian/ar-157179/>

<https://kmk.gipuzkoa.eus/es/-/de-la- peste-al-covid-19-siguiendo-el-rastro-de-las-epidemias-en-gipuzkoa>

<https://www.igartubeitibaserra.eus/es/noticias/de-cuando-los-pastos-y-las-huertas-se-convirtieron-en-cementerios>